

BERTZE MUSIKEN 12. JAIALDIA | 12 FESTIVAL DE OTRAS MÚSICAS

ERTZ #12

LIONEL MARCHETTI - O (FOR PERCUSSION) -
FERRAN FAGES - GIANMARCO SERRA -
ONE LESSON SIMPHONY ORCHESTRA -
ADIBERA #3 - MARCELLO LIBERATO -
SANDRA CUESTA - CIRCO PATAFISICO -
FRÉDÉRIC JOUANLONG - ARANTXA ITURBE -
PATZIKU PERURENA - CARMEN PARDO -
RAMÓN ANDRÉS - MARTA GARCÍA QUIÑONES -
OIER ETXEBERRIA - DONCAMATIC + RÜDIGER

WWW.ERTZA.NET

9-17/2011

IRAILAREN / SEPTIEMBRE

9-11 Berako Kultur Etxea. Bera (Nafarroa).
12-15 Arteleku. Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa).
17 Ttattola Gaztetxea, Elgar Zentroa. Hazparne (Lapurdi).

ERTZ



arteleku



/audiolab/

elkartea



EIHARTZEA

KONTAKTUA / CONTACTO

Xabier Erkizia / xabierk@ertza.net / +34 666904447
Iñigo Telletxea / inigo@ertza.net / + 34 617154009

INFORMAZIOA / INFORMACIÓN

<http://www.ertza.net>

AURKEZPENA

Beharbada topikoegia izango da erratea, seguruaski jaialdi antolatzaile orok errepikatu izan baitu erretorika bera noiz edo noiz, baina guk ere, gure ERTZ egiterakoan, momenturen batean baina hutsik egin gabe, erraten dugu hau izango dela azkena. Ez dela bertze ediziorik izango. Akabo. Amaitu dela.

Dena erran behar bada, normalean halako aipamenak jaialdia iritsi aurretik egin ohi izaten ditugu antolatzaileok, gure burua engainatu nahiean beharbada, baitakigu jaialdia hasten den momentuan, musika airean harat honatean dantzan jartzen denean, belarrizuloetako iletxoak bixitzen direnean halako edozein ideia automatikoki baztertzen dugula. Ametsetan hasten garenean ez baitago bueltarik.

12 urte eman ditugu guk horrela. Zalantzaaren, satisfakzioaren eta pasioaren artean erdi mozkor. Gure kontraerranak elikatuz, gure zauri eta ahultasunetan arakatuz, gure gorrirei zarata eta zarata goseari isiltasunak oparituz. Gustura. Eta denborak (batzuetan, ez beti) ematen duen baimenarekin konturatu gara, hori dela azken finean urtero, uda iritsi bezala ERTZ hitza osatzen duten lau hizki horiek kopetan markatzen dizkigun arrazoï nagusia.

Ze, zinikoa emateko arriskuarekin, onartuko dugu aspaldian hasi ginela musikaz sospetxatzen eta arteari susmoak hartzen... baina aldiberean badakigu sekula ez garela aspertuko beraien pasioak gurekin partekatzen dituzten horiei ateak zabaltzen. Jende aunitzek egiten duen bezala, eta jende orok egin beharko lukeen moduan.

Azken finean, arrastaka daramakigun etiketa ditzosozko hori, esperimentalarena, onartzen bazaigu eta badugu ere, gu, egitan, ez gara esperimentalak.

Errate baterako, aurten operetta bezalako formatu klasikoko emanaldi bat antolatu dugu, herriko abesbatza, musika banda eta bertzelakoekin; bertze kontzertu areto aunitzek bezala, ohiko antzoki batean joan den mendeko musiken kontzertuak programatu ditugu; egunero Berako bizilagun aunitzek egiten duten bezala, herrian zehar ibilaldiak proposatu ditugu; fontaneria biltegi batean performance bat egin araziko dugu, iturginak egunero egiten duen bezala; poesia ere entzungo dugu; eta entzumenari buruz solastuko gara, egunero medikuaren kontsultan hainbertzek egiten duten bezala.

Ez gara esperimentalak, ez. Baina eguneroko gauza horiek denak pasioz bizi nahi ditugu, bapatekotasunez, ustekabeen. Alegia, ezjakin izan nahi dugu, etengabe ikasteko. Inoiz ez aspertzeko. Beharbada orduan benetan esperimentatzen hasiko garela sinetsita.

Ongi etorri hamabigarrenez zarata eginez soinu batzuk ahanzteko aukera ematen duen jaialdi hontara. Ongi etorri bertze musiken ERTZera.

PRESENTACIÓN

Quizás resulte tópico decirlo, porque es un comentario que todo organizador ha repetido en alguna ocasión, pero nosotros también, cada vez que organizamos un nuevo ERTZ, en algún momento, pero sin excepciones, decimos que esta será el último. Que no habrá más ediciones. Que aquí se acaba todo. Hay que reconocer que generalmente, este tipo de comentarios surgen antes de que empiece el festival, como una especie de auto-engaño, porque sabemos que en cuanto arranca el festival, en cuanto la música comienza a bailar en el aire de aquí para allá, en cuanto se nos erizan los pelillos de las orejas, cualquier idea de este tipo es rechazada automáticamente. Cuando empezamos a soñar ya no hay vuelta atrás.

Y así llevamos 12 años. Medio ebrios entre las dudas, las satisfacciones y las pasiones. Alimentando nuestras contradicciones, indagando en nuestras heridas y nuestras debilidades, regalando ruido a nuestras sorderas y silencios a nuestro hambre de ruido. A gusto. Y con las licencias que nos ofrece (no siempre) el tiempo, nos damos cuenta de que es esa la razón principal por la que todos los años, con la llegada del verano, se nos tatúan en la frente esas cuatro letras que conforman la palabra ERTZ. Porque, y a riesgo de sonar cínicos, debemos reconocer que hace tiempo que comenzamos a sospechar de la música y del arte... pero al mismo tiempo sabemos que nunca nos aburriremos de abrir las puertas a aquellos que deciden compartir sus pasiones con nosotros. Como lo hace a diario mucha gente, como debería de hacer todo el mundo.

A fin de cuentas, a pesar de esa dichosa etiqueta que arrastramos, la de experimental, que se nos reconoce y hasta nosotros mismos acabamos reconociendo, tenemos que repetir que no somos experimentales.

Este año, por ejemplo, hemos organizado una opereta (un formato sin lugar a dudas clásico), donde participarán la Banda municipal de Música de Bera, la Coral y mucha más gente; como en otros muchos teatros, hemos programado conciertos de música del siglo pasado en un auditorio al uso; hemos propuesto paseos por las calles del pueblo, tal y como hacen a diario muchos vecinos; utilizaremos un almacén de fontanería para albergar una performance, tal y como hace el fontanero todos los días; escucharemos poesía; y hablaremos sobre la audición, como hacen tantos pacientes diariamente en la consulta del médico.

Pues eso, que no somos experimentales. Pero queremos vivir esas cosas cotidianas con pasión, improvisadamente, inesperadamente. Queremos ser ignorantes, para seguir aprendiendo. Para no aburrirnos nunca. Quizás pensando que sólo entonces podremos empezar a experimentar de verdad.

Bienvenidas a este festival que permite olvidar algunos sonidos haciendo ruido. Bienvenidos al Ertz de las otras músicas.

EGITARAU / PROGRAMA

09-09-2011 > BERA

21:00 : [La Astronave: Opereta científica](#)

10-09-2011 > BERA

17:00 - 20:00 : [Adibera + Sandra Cuesta + Circo Patafísico](#)

22:00 : [live: Lionel Marchetti](#)

23:00 : [live: 0 \(for percussion\)](#)

11-09-2011 > BERA

17:00 : [Open ERTZ](#)

20:00 : [live: Frédéric Jouanlong](#)

12-09-2011 > DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

18:00 : [Presentación del archivo SORDERAS](#)

19:00 : [live: José Manuel Berenguer](#)

19:40 : [live: Carlos Gómez](#)

13-09-2011 > DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

19:00 : [HIRUGARREN BELARRIA: Oier Etxeberria, Carmen Pardo](#)

14-09-2011 > DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

19:00 : [HIRUGARREN BELARRIA: Ramón Andrés, Marta García Quiñones](#)

15-09-2011 > DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

19:00 : [HIRUGARREN BELARRIA: Arantxa Iturbe, Patziku Perurena](#)

20:30 : [live: Ferran Fages](#)

17-09-2011 > HAZPARNE

20:00 : [live: Ferran Fages](#)

21:00 : [Myriam Ayçaguer](#)

22:00 : [live: Frédéric Jouanlong](#)

23:00 : [live: Doncamatic + Rüdiger](#)

IRAILAREN 9A OSTIRALA / VIERNES 9 DE SEPTIEMBRE
Berako Kultur etxea, Bera (Nafarroa)
21:00



ESPAZIO-ONTZIA, Opereta zientifikoa

Koordinazioa: Gianmarco Serra

Espazio-ontzia operetak unibertsoaren azken mugetaraino doan astrountzi baten alferrikako bidaia ilustratzen du. Musikariak dira bertako bidaiariak. Opereta hontan parte hartuko duten musika talde ugarien artean dago sortuberria den One Lesson Symphony Orchestra, baina baita Berako Korala eta Banda, txistulariak, bertsolariak, inprobisatzaileak...

Parte hartuko duten musika taldeak aunitz dira, agerpen espazialak bizitzeko egon daitezkeen sentsibilitate desberdinak bezainbertze. Bereizirik edo konbinazio artikulatuekin elkarturik, elektrifikatuak edo akustikoak, zaratatsuak edo musikalak, armonia sortu edo erritmoa, tradizioa, berritzea, kontserbatzea, destrukzioa edota jakinmina gaituz, eskena gaineko agerpenak bata bertzearen ondotik izanen dira, bakoitza bi eta hamar minutuko gehienezko luzerarekin.

Dakigun bakarra da zientzia eta zientzia-fikzioaren artean dantza egiten duela Espazio-ontziak, eta ezezagunaren eta isiltasunaren aurrean dugun beldurraren mugak xamurki gurutzatzen saiatuko dela. Ez dakigu lortuko duen, baina saiatu behintzat, bai.

LA ASTRONAVE, Opereta científica

Coordinación: Gianmarco Serra

La opereta La astronave ilustra el viaje inútil de una nave espacial hacia las inalcanzables fronteras del universo, y los músicos son su equipaje. Entre los muchos grupos musicales participantes en esta operetta se encuentran la One Lesson Symphony Orchestra, la Coral y la Banda de Bera, txistularis, bertsolaris, improvisadores....

Los grupos de músicos que participan son tantos como diversas son las sensibilidades con las que cada uno vive las apariciones espaciales. En secuencia, separadas las unas de las otras o en conjunto en articuladas combinaciones, electrificadas o acústicas, ruidosa o musicalmente, produciendo armonía o prescindiendo hasta del ritmo, la tradición, innovación, conservación, destrucción, curiosidad se suceden la una a la otra en intervenciones que oscilan entre los dos y los diez minutos cada una.

Sólo sabemos que entre ciencia ficción y ciencia la opereta intenta dulcemente cruzar las fronteras del miedo por lo desconocido y el silencio. No sabemos si lo alcanza pero lo intenta.

IRAILAREN 10A LARUNBATA / SÁBADO 10 DE SEPTIEMBRE
Berako Kultur etxea, Bera (Nafarroa)
22:00



LIONEL MARCHETTI

Frantzia, 1967. Musika konkretu konposatzaile frantzes honek akusmatikarekiko zaletasun berezia du, baina inprobisazio libreari uko egin gabe. Alor honetan, hainbat artistarekin egin izan ditu elkarlanak, formatu desberdinetan: bikoteka Jerome Noetinger, Yoko Higashi edo Seijiro Murayamarekin bertzeak bertze... edo Le Cube eta Quintet Avant talde haundiagoetan ere bai. Azken urteotan ohiko lankidetzat hartu duen Olivier Capparosekin *Equus* (Pogus, 2009) eta *Kitty Hawk* (Césaire, 2009) bezalako lan zoragarriak argitaratu ditu berriki. Musika konposatu eta interpretatzeaz gain, Marchettik haur eta helduekin soinu tailerrak egin izan ditu, eta *La musique concrète de Michel Chion* (Éditions Metamkine, 1998) liburua baita poesia ere idazten du.

Francia, 1967. Compositor francés de música concreta, con predilección a la acusmática pero sin reparos para improvisar de forma libre. En este último campo, ha colaborado con multitud de artistas, en diferentes combinaciones: a dúo con Jerome Noetinger, Yôko Higashi, Seijiro Murayama.. o en las formaciones *Le Cube* o *Quintet Avant*. Durante los últimos años viene colaborando regularmente con el músico Olivier Capparos tal y como demuestran los recientes y excelentes trabajos realizados conjuntamente como *Equus* (Pogus, 2009) o *Kitty Hawk* (Césaire, 2009). Además de componer e interpretar música, Marchetti escribe poesía, realiza talleres de sonido con adultos y niños y ha publicado el libro *La musique concrète de Michel Chion* (Éditions Metamkine, 1998).

<http://spiritualarchives.blogspot.com/2009/01/artists-lionel-marchetti.html>

<http://www.nuun-records.com/>

<http://lampe-tempete.fr/>

<http://www.ubu.com/sound/marchetti.html>

IRAILAREN 10A LARUNBATA / SÁBADO 10 DE SEPTIEMBRE
Berako Kultur etxea, Bera (Nafarroa)
23:00



0 (FOR PERCUSSION)

Izenak berak dioen bezala **0 (for percussion)** perkusioari emandako ensemble edo musika talde bat da (2tik 6ra izan daitezke partaideak) musika garaikideko konposizioen sorkuntza eta interpretazioa xede duena. Talde honen errepertorioa XX. mendeko konposizioak, musika esperimentaleko piezak, elektronika, fonografia, inprobisazioa etabar luze batek osatzen du. Hortarako, taldeko musikariek klasikotzat har ditzazkegun ohiko musika-tresnak (danborrak, teklatuak, gong-ak eta bertzelako tresnak) erabiltzen dituzte, baita eguneroko bizitzako edozein objektu (material organikoa, metalak, plastikoak, zeramika, egurra...) edo tresna elektronikoak ere. Hiru musikarik osatzen dute 0 (for percussion) ensemblearen bihotza: Maximilien Dazas, Julien Garin eta Stéphane Garinek.

ERTZ jaialdirako Lapurdiko talde honek errepertorio berria estreinatuko du, Moondog, Billy Martin, Juan Felipe Waller, David Lang, Anthony Pateras edo David Toub konposatzaileen piezekin.

0 (for percussion) es un ensemble de percusión (que oscila entre 2 a 6 componentes) dedicado a la creación e interpretación de composiciones de música contemporánea. El repertorio de este ensemble recorre composiciones del siglo XX, piezas de música experimental, electrónica, fonografía, improvisación etc.

0 (for percussion) combina el uso de instrumentos convencionales que podríamos clasificar como "clásicos" (tambores, teclados, platos, gongs y otros accesorios) con cualquier otro objeto de la vida ordinaria (material orgánico, metales, plástico, cerámica, madera...), así como instrumentos electrónicos. El grupo central del ensemble 0 (for percussion) esta formado por Maximilien Dazas, Julien Garin y Stéphane Garin.

Para el festival ERTZ este ensemble de Lapurdi estrenará un repertorio con composiciones de Moondog, Billy Martin, Juan Felipe Waller, David Lang, Anthony Pateras y David Toub.

IRAILAREN 10A LARUNBATA / SÁBADO 10 DE SEPTIEMBRE
Berako Kultur etxetik abiatuta, Bera (Nafarroa)
17:00 - 20:00



Berako karriketatik paseatzea proposatzen dizugu, **ADIBERA** egitasmoaren eskutik, eta bidean sorpresak topatuz: **Marcello Liberato**k aste osoan zehar kolektiboki egindako tailer batean sortu soinu-zko-eskulturrak erakutsiko dizkigu, **Sandra Cuesta**k herriko ez ohiko toki batean performance bat aurkeztuko du eta **Zirku Patafisikoak** tea entzutera eta edatera gonbidatuko gaitu.

Proponemos un paseo por las calles de Bera, bajo el paraguas del proyecto **ADIBERA**, durante el cual **Marcello Liberato** nos mostrará algunas esculturas realizadas durante el taller que realizará durante toda la semana, **Sandra Cuesta** realizará una performance en un inusual lugar del pueblo, y el **Circo Patafisico** nos invitará a escuchar y tomar el té.


MARCELLO LIBERATO

Marcello Liberato musika eginez jaio zen eta musika eginez bizi da. Bere lanek soinuaren izaera anitzak eta entzumenaren esperientziaren misterioak miatzen dituzte, zentzuak asetzen dituzten egoerak eraginez. Horretarako, nagusiki gure ingurunetik berreskuratutako eta birziklatutako gaiak eta materialak erabiltzen ditu, egunerokotasuna arte eta esperientzia artistikoa eguneroko bizipen bilakatuz.

Oraingo honetan Liberatok soinu-eskulturrak sortzeko lanean ariko den lan-taldea zuzenduko du aste guztian zehar. Larunbatean, irailak 10, Berako toki desberdinetan kokatutako eskulturrak aurkeztuko dira jendaurrean.

Marcello Liberato nace y hace música a diario. Sus trabajos, exploran las diversas naturalezas del sonido e infinitos misterios de la experiencia de la escucha, generando situaciones que llenan los sentidos. Para ello, utiliza principalmente materiales rescatados y reciclados de nuestro entorno más cercano, convirtiendo lo cotidiano en arte y la experiencia artística en vivencia diaria. En esta ocasión Liberato dirigirá un grupo de trabajo que durante toda la semana construirá una serie de esculturas sonoras en diferentes lugares de Bera. El sábado 10 de septiembre se presentarán las esculturas creadas durante el taller.

IRAILAREN 10A LARUNBATA / SÁBADO 10 DE SEPTIEMBRE
Berako Kultur etxetik abiatuta, Bera (Nafarroa)
17:00 - 20:00



SANDRA CUESTA

Dantza mundutik datorren artista. Larraitz Torresekin elkarlanean ari da Colombina's proiektuan eta Miatzaileak taldeko partaide da, Mugatxoan proiektuaren barnean. ERTZeko edizio honetan *Ahora, funciona en tu sangre* lana aurkeztuko du.

AHORA, funciona en tu sangre

Lorategia bertze alde batetik begiratuta eta denboran galduz gero, korrontean galdu gaitezke. Mundua lorategi batean baldin bada, irten eta bertan gaude. Zentruaren bila egindako ibilbidea, ez da sakabanatzea. Saiatu eta jo egin behar da soinua ateratzeko (barne tentsioa). Zeren menderaezinak oraindik, zure odolean darrai.

Artista proveniente del mundo de la danza. Colabora regularmente con Larraitz Torres en el proyecto Colombina's y es miembro del grupo Miatzaileak del proyecto Mugatxoan. En esta edición del ERTZ presenta la obra *Ahora, funciona en tu sangre*.

AHORA, funciona en tu sangre.

Mirando el jardín desde otro lado y abandonándonos en el tiempo, podemos perdernos en la corriente. Si el mundo está en un jardín, saliendo ya estamos ahí. El recorrido en busca del centro, no es disgregación. Hay que entrenar y golpear para hacer sonar (la tensión interna). Porque lo indomable todavía, funciona en tu sangre.

IRAILAREN 10A LARUNBATA / SÁBADO 10 DE SEPTIEMBRE
Berako Kultur etxetik abiatuta, Bera (Nafarroa)
17:00 - 20:00



CIRCO PATAFÍSICO

"Concerto per bollitori"

Prof. Van Der Flaffhen
Dottor Rino Dotto
Dottor Clean

Kontzertua eta te dastaketa. Zenbait te-ontzi erabiliz eta camping-gas botilak manipulatzuz, Zirku Patafisikoak zentzumenendako esperimientua aurkezten du, sua, ura eta haizea bezalako elementu naturalek sortutako soinuez osatua. Guzti hori soinuaren modulazio eta mugimenduaren gaineko esku-hartze batez lagundurik, eta noski, tearen usain goxoaz.

Concierto y degustación de té. Utilizando una serie de teteras y manipulando los hornillos, el Circo Patafisico presenta un experimento sensorial a base de sonidos producidos por fuerzas naturales tales como el agua, el aire y el fuego. Todo ello acompañado por una intervención electroacústica de modulación y movimiento del sonido, y obviamente, de los sugerentes aromas del té.

IRAILAREN 11a IGANDEA / DOMINGO 11 DE SEPTIEMBRE
Kaxerna gaztetxea, Bera (Nafarroa)
18:00 - 21:00



OPEN ERTZ
+
FRÉDÉRIC JOUANLONG

Karawane, 1916an [Hugo Ball](#) poetak idatzi eta dagoeneko klasiko bihurtu den poema dadá-k bizirik jarraitzen du. Eta oraingoan oso-osorik fonetikoa den poema honi bizia ematen dion pertsonak Frédéric Jouanlong du izena. Kourgane avant-rock taldeko kantaria, inprobisatzailea eta arimaren sakontasunen abeslari den honek musikari mordo batekin egin du lan eskena gainean: Daunik Lazro, Akosh S., Zu... eta Phil Minton bezalako artistekin ere aritu da elkarlanean. Azken honekin batera ahotsarekin jolasteko ageriko gogoia partekatzen du.

Karawane, el ya clásico poema dadá escrito en 1916 por [Hugo Ball](#) sigue vivo. El hombre que en esta ocasión le da vida a este texto puramente fonético se llama Frédéric Jouanlong. Cantante de la formación avant-rock Kourgane, improvisador, vocalista de las profundidades del alma, Jouanlong ha compartido escenario con músicos de la talla de Daunik Lazro o Akosh S. y ha trabajado con artistas como Phil Minton, con el que le une una evidente intencionalidad de jugar con la voz.

<http://www.myspace.com/fredericjouanlong>
http://en.wikipedia.org/wiki/Hugo_Ball

IRAILAREN 12a ASTELEHENA / LUNES 12 DE SEPTIEMBRE
Arteleku, Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)
19:00



JOSE MANUEL BERENGUER

Orquesta del Caos-eko eta *Música 13* jaialdiko zuzendaria, *Nau Côlea* plataformaren sortzaile, *Académie Internationale de Musique Électroacoustique* elkarteko kide eta UNESCOko Musika Internazionalako Kontseiluko *International Conference of Electroacoustic Music* instituzioaren ohorezko presidentea da.

Entzute handiko instituzio internazionalak emandako hainbat sari jaso ditu bere ibilbidean. Azken urteetan bere pentsamendu artistikoa adieraztera jo du, instalazioaren eta denbora errealeko konputazio gailuen bidez, filosoafiari buruzko erreflexioak eginez, zientziaren historiari buruzkoak, lengoaiaren mugak, etika, bizitza eta inteligentzia artifiziak, robotika eta informazioaren metabolismoa, pertzeptzioaren mugak eta giza-ulermenari buruzkoak.

Director de la *Orquesta del Caos* y del Festival *Música 13*, fundador de *Nau Côlea*, miembro de la *Académie Internationale de Musique Électroacoustique de Bourges* y Presidente de Honor de la *International Conference of Electroacoustic Music* del Consejo Internacional de la Música de la UNESCO.

Ha sido objeto de premios y distinciones otorgados por instituciones nacionales e internacionales de gran prestigio. En los últimos años, ha tendido a expresar su pensamiento artístico, por medio de la instalación y los dispositivos de computación en tiempo real, con la reflexión acerca de la filosofía y la historia de la ciencia, los límites del lenguaje, la ética, la vida y la inteligencia artificiales, la robótica y el metabolismo de la información, los límites de la percepción y la comprensión humanas.

IRAILAREN 12a ASTELEHENA / LUNES 12 DE SEPTIEMBRE
Arteleku, Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)
20:00



CARLOS GÓMEZ

Kolonbiako soinu-artista eta konposatzailea, soinu ingeniaria eta dokumentari sortzailea. Soinu-arte eta soinu irakaslea Bartzelonako zenbait instituzioetako multimedia sistementzat. José Manuel Berenguerrekin batera Orquesta del Caos proiektuko zuzendari eta koordinatzailea da, musika elektronikoaren eta soinu-artearen sormena, ikerketa eta zabalkundeari zor zaion elkarte. Zeppelin jaialdia, Sonidos en Causa proiektua eta Sonoscop artxiboa horren lekuko. Horrez gain IDATBCNko fundatzaile eta irakaslea ere bada, Bartzelonako arte, teknologia eta diseinu institutua.

Compositor y artista sonoro colombiano, ingeniero de sonido y realizador documental. Profesor de arte sonoro y de sonido para sistemas multimedia en diversas instituciones de Barcelona. Es, junto a José Manuel Berenguer, director y coordinador de los proyectos de la Orquesta del Caos, un colectivo dedicado a la creación, investigación y difusión del arte sonoro y la música electrónica. Ejemplo de ello son El Festival de arte sonoro Zeppelin, el archivo Sonoscop y el proyecto Sonidos en Causa. Asimismo es miembro fundador y profesor del IDATBCN, instituto de diseño, arte y tecnología de Barcelona.

www.sonoscop.net

IRAILAREN 13tik 15era / Del 13 al 15 DE SEPTIEMBRE
Arteleku, Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)
19:00



HIRUGARREN BELARRIA

Entzumenari buruzko jardunaldiak (1. zatia) / Jornadas sobre la escucha (1ª parte)

Gonbidatuak / Invitados:

**Carmen Pardo, Ramón Andrés, Marta García Quiñones,
Arantxa Iturbe, Patziku Perurena**

2011n hasi eta 2012an jarraituko duen mintegi hau, soinuak, sentimendu bakarrak eta errepikaezinak sortzeko duen gaitasunetik abiatu nahi dugu. Eta bide horri jarraituz eztabaida, argitalpen, entzunaldi eta erakusketez osatuz joango da. Egitasmo honen bidez entzumenaren funtzio politikoa eta errituala aztertu nahi dugu, demokratiko eta demagogikoa. Edo nahi bada, soinuak giza-taldeak batzeko duen gaitasun "sagratua". Informazio gehiagorako ikus PDF gehigarria edo aipatu webguneak.

Este seminario, planteado como estudio continuado en varias sesiones públicas que tendrán lugar durante el 2011-2012, parte de la singularidad afectiva que es capaz de producir el sonido. Irá tomando forma a partir de debates, audiciones, publicaciones, conciertos y exposiciones y su objetivo es analizar la función política, democrática y demagógica, ritual y de cohesión social del sonido o, si se quiere, su sentido "sagrado". Para más información consultar el documento PDF adjuntado o las webs mencionadas.

<http://www.arteleku.net>

<http://www.arteleku.net/audiolab>

IRAILAREN 15a OSTEGUNA / JUEVES 15 DE SEPTIEMBRE
Arteleku, Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)
20:30

IRAILAREN 17a LARUNBATA / SABADO 17 DE SEPTIEMBRE
Tattola gaztetxea, Hazparne (Lapurdi)
19:00



FERRAN FAGES

Barcelona, 1974. Jatorriz gitarrajolea izanik ere, 1998an tresna hontatik urruntzea erabaki nuen, tresna berarekiko eta honekin egindako musikarekiko erreflexio eta birplanteamentu prozesu bat martxan jartzeko. Krisialdi moduko hortan, Morton Feldmanen lanarenganako edo Alvin Lucier-en lanean dauden prozesu eta gertakizun akustikoenganako interesa piztu zitzaidan. Ondorioz, 2003an nere musika planteamenduak estruktura ttiki moduan aurkeztzen hasi nintzen, “a cavall entre dos cavalls – composicions per a guitarra” (creative sources, 2004) diskoak erakusten dituen emaitzekin. ERTZ jaialdian aurkeztuko dudak "Radi d'or" lanak tonu laurdeneko afinazioak eta Pure-Data aplikazioarekin egindako sintetizadore bat erabiltzen ditu.

Lan hauez gain inprobisazio askearen munduan lan egiten dut, bertzeak bertze Alfredo Costa Monteiro, Ruth Barberán eta Lali Barrière bezalako musikariek osatu egitasmoetan.

Barcelona, 1974. Guitarrista de formación, decido alejarme de la guitarra en el año 1998 para empezar un proceso de reflexión y replanteamiento sobre el instrumento y la música que hago con ella. En este momento de crisis, me intereso por la obra de Morton Feldman y por los procesos y fenómenos acústicos en la obra de Alvin Lucier. Como resultado, en el año 2003 empiezo a presentar mis nuevos planteamientos musicales en forma de pequeñas estructuras que se materializa con la edición de “a cavall entre dos cavalls – composicions per a guitarra” (creative sources, 2004). En el trabajo que presentaré en ERTZ, un fragmento de la pieza "Radi d'or", trabajo con afinaciones por cuarto de tono y con un sintetizador que yo mismo he diseñado con el entorno de programación Pure-Data.

Paralelamente desarrollo un trabajo dentro del campo de la improvisación con proyectos estables con Alfredo Costa Monteiro, Ruth Barberán y Lali Barrière.

IRAILAREN 17a LARUNBATA / SABADO 17 DE SEPTIEMBRE
Tattola gaztetxea, Hazparne (Lapurdi)
19:00 - 00:00



DONCAMATIC + RÜDIGER

Bere hitzetan, elektronika, sikodelia eta erlijiotasunaren artean kokatzen duen egitasmo berezia da Doncamatic, eta luzapenez Rüdiger baterijolearekin (Monarch, Joseba Irazoki, Willis Drummond...) duen elkarlan proiektua. Batzuetan sintetizadore bidezko musika dantzagarria izan daiteke, bertzean heavy metal sintetizatu moduko bat, baita post-rock disco modukoa ere... eta hain zuzen horrek bereizten du Baiona aldeko musika egitasmo hau. Informazio zehatzagorik nahi? Erraza. Agertu kontzertuan, hori bai, kirol oinetakoekin.

Según sus propias palabras el proyecto Doncamatic y por extensión la colaboración que mantiene con el percusionista Rüdiger (Monarch, Joseba Irazoki, Willis Drummond...) es una mezcla entre electrónica, psicodelia y religiosidad. Una aventura musical que algunas veces suena a músicaailable hecha con sintetizadores, en otras a una especie de heavy metal sintetizado, o una suerte de post-rock disco... y es precisamente ese eclecticismo el que caracteriza este proyecto musical de la zona de Bayona. Que quieres información más concreta? Es fácil. Ven al concierto, eso sí, con zapatillas de deporte.

www.myspace.com/doncamatic
www.myspace.com/felixbuff

IRAILAREN 17a LARUNBATA / SABADO 17 DE SEPTIEMBRE
Tattola gaztetxea, Hazparne (Lapurdi)
19:00 - 00:00

NI NÜZU Soinuzko dokumentaria / Documental sonoro

Iraupena / Duración : 46min
Zuzendaritza, grabaketa / Dirección, grabación: Myriam Ayçaguer
Ekoizlea / Productora: ARTegia
Nahasketa / Mezcla: Audrey Ginestet

Euskal Herriko herri gehienetan, etxe bakoitzak badu izen bat, betidanik berdina, etxeari eta etxekoei nortasuna ematen diena.

Ni nüzü soinuuzko dokumentalean, egilea Santagraziko etxalde batetara itzultzen da, bere amonaren etxera, segidarik gabe egon den baserri bat eta non laborantxako lanak geldituak diren iada. Bere mikrofonoekin eta familiaren laguntzarekin, etxe zaharrean eguneroko soinuak grabatzen ditu eta haur denborako soinuen berpizten entseatzeko da.

Lan honek nahasten ditu soinu horiek eta ahots batzuk – amonarena, ondoko herrietako jakile batzuen – etxe izenei buruz mintzatzeko: zoin da herrietan izen horietaz eginik den erabilera, zoin den bere ustez izen horien esanahia...

Ni nüzü osoa xiberutarrez grabatua izan da; frantsesera itzultitako bertsio batetan presentatua izanen da.

En la mayoría de pueblos de Euskal Herria, las casas tienen un nombre, que perdura inalterable en el tiempo y que define la identidad tanto de la casa como de la gente que las familias que la habitan.

En el documental sonoro «Ni nüzü», la directora regresa a una finca de Santa Grazi: la casa de su abuela, una finca que se ha quedado sin seguida y donde hace tiempo que cesó la actividad agrícola. Con sus micrófonos, y con la ayuda de su familia, graba los sonidos de lo cotidiano en la vieja casa y intenta hacer revivir los sonidos de antes, los sonidos de su infancia.

El montaje mezcla esos sonidos con voces –la de la abuela y la de algunos testigos de los pueblos vecinos- para hablarnos sobre los nombres de las casas, el uso que se hace de esos nombres en los pueblos, de la significación que pueden tener...

Ni nüzü es enteramente en dialecto xiberutar; y en esta ocasión se presenta una versión subtitulada en francés.

ABUZTUAREN 31TIK IRAILAREN 17RA DEL 31 DE AGOSTO AL 17 DE SEPTIEMBRE



ADIBERA#3

2009 urtean hasi zen ADIBERA, Ertz jaialdiaren barru. Bera herriko zentzumenentzako mapa. Sentikarta. Mapa efimeroa. Irekia eta osatugabea (zurearen zai eta zure modukoa). Paisaian diren hala paratzen ahal diren soinuak. Ikustekoak. Usain, taktu eta dastamenak. Ideiak. Paisaio. Kartanbera. Vera mente. bERTZe musiketatik abiatuta Beratik mundura ireki nahi den sentsazio, sentipen, oihartzun, zirrara, eragin, irudipen, aieru, susmo... bildu eta azalduko dituen karta-mapa. 2009 urtean paisaiarekin zerikusirik zuten [saio, instalazioak, geometriak eta zuhaitzen entzunaldiak izan ziren](#). 2010 ean ERTZ jaialdiaren edizioan ADIBERA telefono bidez kontsultatzeko aplikazio-mapa bihurtu zen, [NOTOURS](#) egitasmoarekin bat eginez. Aurten, 2011, ADIBERA egitasmoak gonbidapen zabala egiten dizu, edozein soro, txoko, parada, eskaparate eta bestelako gune arruntetan sentsazio efimeroen zure testigantza edota kontribuzioa laga dezazun. Adibera aurten Gipuzkoako Ernio mendi tintorretik abiatuko da, Bera herrian irailaren 9,10 eta 11 aineratu, eta ondoren Donostia eta Hazparnen (Lapurdi) jardungo da, irailaren 17 arte. Erraz-xinple-arintasunaren lagun. Zure zai.

ADIBERA nace en 2009 dentro del festival Ertz. Mapa para los sentidos alrededor de Bera. Carta efímera, inacabada y abierta (a tus contribuciones). Sonidos. Visiones, olores, tactos y sabores. Que existen ya o que se instalan. Ideas. Invenciones paisajísticas. Vera mente. Cada contribución o inserción al mapa irá acompañada de una ficha. En la que se darán los pormenores y características de la inserción. Y, en el caso que fuera necesario, notas sobre la construcción y mantenimiento. Estas fichas escritas podrán también ser representadas por una carta o naípe. Representación visual y simbólica de la contribución. En el año 2009, se realizaron [varias acciones en relación con el paisaje como instalaciones, geometrías, audiciones de árboles...](#) En el año 2010 el proyecto ADIBERA se presentó en colaboración con [NOTOURS](#), generando un nuevo sistema de audioguías sobre sensaciones encontradas en las calles de Bera. Este año, ADIBERA 2011 realiza una invitación abierta a aportar contribuciones o testimonios en escaparates, prados, paradas y otros rincones cualesquiera. ADIBERA 2011 empieza el miércoles 31 de agosto en el monte Ernio (Gipuzkoa) y planeará por todo el festival Ertz que empieza en Bera el 9,10 y 11 de septiembre y pasa por Donostia y Hazparne (Lapurdi) del 12 al 17 de septiembre. ADIBERA es amiga de lo fácil, simple y efímero. Y te espera.

IRAILAREN 12TIK 16RA / DEL 12 AL 16 DE SEPTIEMBRE
Arteleku, Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)
09:00 - 20:00

GORRERIAK Soinu artxiboa

Zelatatzen gaituzten gorrierian inguruko soinu piezen deialdiaren bilduma ([ikus parte hartzaileak](#)) Gorrieria mota asko dago, baina bereziki ia entzunezinak izanik ere gure entzumena makaltzen duten horietan jarri nahi izan zuen arreta Bartzelonako Zeppelin soinu-arteari eskainitako jaialdiak 2008an. Zaratak entzutea eta haiekin lan egitea gustuko dugu, baina badakigu ere zarata hauek askotan gorrieria mental moduko bat sortzen dutela. Gorputz osoarekin entzun nahi dugu, eta horregatik, artxibo honek informazioa deitzen dugun ideia horren azpian gordetzen diren isilduezen, irudien eta soinuen gehiegikerien inguruan hausnarketa egitera gonbidatzen gaitu; kontsigna politikoei gure jokaeretan nahiz buruetan grabatu nahi dizkiguten etengabeko marmar errepikagarri horien inguruan; boterearen kontzentrazio haundiek sortzen dituzten soinu arraroen inguruan; herritar baino, bezero edo kontsumitzaile sentiarazten gaituzten indarrei buruz... azken finean, gure soinu propiorik gabe uzten gaituen zarata guzti horri buruz pentsatu nahi dugu. Horregatik, benetan zer entzun dezakegun jakin nahi dugu, gorrieria mental eta sozial honen mekanismoak zein diren, eta gehienbat garaiotako gorrieriaren aitzinean bertzelako entzuteko moduak proposatu nahi dituzten gure sorkuntzei buruz galdetu nahi diogu geure buruari.

[SONOSCOPE](#) egitasmoak antolatu eta ondorioz [Orquesta del Caos](#)ek sortutako [GORRERIAri buruzko artxibo kolektibo hau](#), [Arteleku](#)ko erakusketa aretoan kontsultagarri egonen da, irailaren 12tik 16ra.

Archivo Sonoro SORDERAS

Convocatoria de piezas sonoras en torno a las sorderas que nos acechan ([ver participantes](#)) Hay muchos tipos de sordera pero aquellas a las que el [festival de arte sonoro Zeppelin de Barcelona](#) ha querido atender son esas apenas perceptibles que van minando nuestra escucha. Nos gusta escuchar los ruidos y trabajar con ellos, pero sabemos también que estos ruidos a menudo inoculan una suerte de sordera mental. Queremos escuchar con todo nuestro cuerpo y por ello, este archivo nos invita a reflexionar sobre el exceso de verborrea, imágenes y sonidos que bajo la cobertura de la llamada información inundan nuestros oídos; a ese rumor incesante y repetitivo que las consignas políticas pretenden grabar en nuestras mentes y nuestros comportamientos; a los extraños sonidos que generan las grandes concentraciones de poder; al modo en que continuamente se nos insta por doquier a considerarnos clientes, consumidores y no ciudadanos... a todo ese ruido que nos deja sin sonidos propios. Por ello, a través de este archivo queremos preguntarnos qué es realmente lo que podemos escuchar; qué mecanismos operan esta gran sordera mental y social que nos aqueja y, sobretudo, interrogar nuestras/vuestras creaciones en tanto dispositivos de una escucha que se alza contra todas esas sorderas que habitan nuestro tiempo.

Este archivo colectivo sobre la [SORDERAS](#), organizado y diseñado por el proyecto [SONOSCOPE](#) y por extensión por la [Orquesta del Caos](#), estará disponible para consulta en la sala de exposiciones de Arteleku desde el día 12 al 16 de septiembre.

